



Turkia bueltan da

Turkiar herriak ez ziren inoiz Kaukasotik joan. Halere, SESB sortu zenetik Turkiako Estatua Kaukasotik kanpo egon da, 2020ra arte. Karabakh Garaiko gerran Azerbaijanek eta Turkiak Armenia garaitu dute, horri esker, Ankarak ehun urte eta gero bere armada zabaldu du Kaukasoon, Azerbaijanek Armeniaren lepotik berreskuratu duen lurraldean; eta Istanbuletik Bakura lurralde jarraikortasuna izango dute turkiar herriek. Azerbaijan eta Armenia arteko su-eten akordioaren arabera, Azerbaijaneko enklabea den Nakhitxevango Errepublikak Autonomoa konektatzeko autobide bat igaroko da Armeniako lurretik Azerbaijaneko gainontzeko lurraldeekin konektatuz.

Recep Tayyip Erdoğan Turkiako presidentearen estrategia espansionistaren ardatzetako bat panturkismoa bultzatzea da Europako eta Asiako herri turkoen artean, izan estatuak, lurralde autonomoak edo gutxiengoak. Adibidez, 2009an sortu zen Turkiar hizkuntzako Estatuaren Lankidetza Kontseilua.

Erdoğanek beste bi ardatz erabiltzen ditu Turkiako eragina zabaltzeko: neotomanoa eta erlijiosoa. Otomandar inperioaren lurralde izandakoetan Ankarak bere eragin ekonomiko, politiko eta kulturala garatzeko ubide *natural* bat du, baina honek askoz hobeto funtzionatzen du eskualdearen edota talde etnikoaren erlijio nagusia musulman sunita denean.

Halere, gaur egun Turkia gai izaten ari da bere eragin ekonomikoa indartzeko Serbian, Montenegron, Georgian

Turkia Kaukasoon eta Balkanetan bueltan dago, baina baita ere Ipar Afrikan eta Asian. Erdoğanen Justizia eta Garapenaren Alderdia Anaia Musulmanen oso gertukoa da eta praktikan, Qatarren laguntzarekin, sektore politiko horren lidergoa hartu du

eta Ukrainan, aprobeztatuz Europar Batasunak sortzen duen frustrazioa inoiz iristen ez den integrazioagatik. Gauza bera gertatzen da gehiengo musulmaneko herrialdeetan, Albanian, Bosnia-Herzegovinan eta Kosovon, nahiz eta kasu hauetan harremana askoz ere hertsia goa den. Neotomanismoak nonbaiten aurrera egiten badu Balkanetan da, Turkiako presidentek arazo politikoak izaten dituen bakoitzean bere aldeko mobilizazioak egon dira Pristinan, Tiranen eta Sarajevon. Azken honetan mitin erraldoi bat eman zuen orain bi urte.

Turkia Kaukasoon eta Balkanetan bueltan dago, baina baita ere Ipar Afrikan eta Asian. Erdoğanen Justizia eta Garapenaren Alderdia Anaia Musulma-

nen oso gertukoa da eta praktikan, Qatarren laguntzarekin, sektore politiko horren lidergoa hartu du. Udaberri Arabiarretan rol oso garrantzitsua jokatu du mobilizazioekin, muturreko islamismo armatuarekin eta armadarekin. Ankararen eraginpeko Egiptorenak ez zuen denbora asko iraun Al Sisiren Abdelfattah-en estatu kolpeak bukatu zuelako Anaia Musulmanen gobernuarekin. Baina Turkiak errebantxa hartu du Libian eta orain armada du zabaldua Afrikako herrialdean. Bestalde, Ankarak hortzak erakutsi dizkio Greziari eta Siriako iparraldean okupatzen jarraitzen du nazioarteko legedia hautsiz.

Turkiak egin duen ia guztia musu truk atera zaio Mendebaldeak bere beharra duelako. Ikuspegi geopolitikotik oso herrialde garrantzitsua da Europa, Asia eta Afrika arteko zubi bezala, kostalde zabala du eta NATOk bigarren armadarik indartsuena. Errusiak maiz egiten du talka Ankararekin, baina Moskuk Turkiarekin duen harremana zaintzen du negozioengatik eta aliantza atlantikoak pitzatzeko ematen dion aukeragatik. Halere, Erdoğan borroka geopolitikoan maisuki jokatzen ari den arren, etengabe atzeratzen joan den arazo ekonomikoak geroz eta tamaina handiagoa hartu du. Hortik etor daiteke Erdoğanen amaiera, zorrak itotako ekonomia da Turkiakoa. Koma egoeran dagoen sistema finantzario turkiarra izan daiteke Mendebaldearen tresna nazioarteko turkiar eragina baretu eta aliatu deserosoa motzean lotzeko. ●



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA